

## EUSKO IKASKUNTZA CURRÍCULUMEAN Amaigabeko gai baten iragana, oraina eta geroa

Fermín Barceló

---

**Eusko Ikaskuntza Curriculum-ean**, hau da XII, Kongresuari hasiera emango dion hitzaldia. Zergatik gai hau eta Kongresu hau? Ikus ditzagun bere aurrekariak. Eusko Ikaskuntza Elkarteak 1918an ospatu zuen lehen kongresuan honako proposamen hau plazaratu zuen: "behar beharrezkoa da haurtzaroko irakaskuntza Herriak eratua izatea, hau da, Aldundi ta Udalak eratua". Mende honen hasieran burututako Kongresuen aktak irakurri ondoren garbi dago bada, irakaskuntza estandarizatu eta gizabanako *abstraktu* baten aurrean *herrlan sustraitutako eskola eta maisu-maistrak* eskatzen zirela. Euskal Herriko ikasleen hezkuntz beharrei erantzun zutenak. Halaber, hezkuntzak euskal gizartearen kezak, arazoak eta kultura jaso behar zituen, eskola euskaldun eta berriaren eginkizuna gizabanakoaren osotasuna lantzea izanik. Aldaketa hauek sustatzeko proposamenen artean Euskal Herriari loturiko gaiak sartzeko eskatzen zen, adibidez, Euskal Herriko Geografia eta Historia. XX. mendearan amaieran aurreko proposamen horiek ez dira asmoak soilik. Gaur egungo hezkuntz erreformak mende honen hasierako eskaera horiek bereganatu eta arautu egin ditu. Esatebaterako, erreformaren dokumentuetan honako gogoeta edo hastapen hauek aurki ditzazkegu: "eskolaren betekizuna izango da *euskal kulturaren hezitzea*, ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzaile batetik ulerturik". "Hezkuntzaren betekizun garrantzikoenetako bat ...kultur ondare propio ( transmititzea da )" (O.C.D. -D.B.H. Etoparako Sarrera 22 orr.). Beraz, "Euskal Kulturaren alderdirik muntadunenak, bere dinamika taiutzen dutenak, bere gatazka eta aniztasuna, irakaskuntza-ikaskuntzako ihardueretan begietsi behar dira". Azken finean, "berehalako ingurunean eta gizartearen orokorki gertatzen diren agerpen errealei lotuago den eskola-kulturaren kontzepzio bat" defendatzen da (OCD-DBH. Etoparako Sarrera, 35-36 orr.). Guzti hau kontutan izanik Euskal Eskola Publikoak bete behar dituen helburuetariko bat hau da legearen arabera: 8ª) Euskal Herriko kide direnez ikasleek duten kultura-nortasuna mamitzen laguntzea, ikasleak beren geografiazko, gizarte-ekonomiazko eta kulturazko ingurunean errotzea bultzatuz" (Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea, 1993 otsailak 23, 34 orr ).

Kongresu honek, beraz, gaur egungo euskal gizarteak planteatzen dituen hastapen hauek ditu erreferentzizat, berauok mendebaldeko munduan dagoen eztabaida orokor baten partaide izanik: curriculum-ak lurralde eta komunitatera izan behar duen irekierarena, alegia. Hemen plazaratzen diren emaitzen ondorioz hezkuntz erreformaren hezurdura edukien mamiz betetzen joateko asmoa dugu. Dena den, gai hau ez da hemen hasi eta ez amaituko ere. Hezkuntz administrazioaren eta gizarte osoaren etengabeko lanaren poderioz gauzatu beharko da. Kongresu honek curriculumaren zehaztapenerako bideak errazteko bere bitartekotza eskeintzen du. Horretarako, era askotako alor, gai, esperientzia, hizlari, ikusmolde etabarren bitartez Euskal Ikaskuntzen ikuspegi zabala jaso nahi izan dugu.

Dena den, galdera asko eta erantzun ugariagoak ditugu esku artean: nola ulertu eta gauzatu euskal ikaskuntzak eskolan?, Zeintzu arazo sortzen ditu?

Gai orokorraren inguruan agertzen diren arazoak azalerazteko Fermín Barceló hizlariaren gogoetak garrantzikoak iruditzen zaizkigu, berak eskolaren, erreformaren eta euskal kulturaren inguruan dituen ezagupenetatik,

**Los estudios vascos en el curriculum.** Este es el título de la ponencia que va a inaugurar el XII Congreso. ¿Cuál es la razón de este tema y de este Congreso? Veamos sus antecedentes. El primer Congreso celebrado por la Sociedad de Estudios Vascos en 1918 concluía con esta propuesta dirigida a la Administración: "es indispensable que la instrucción primaria sea organizada por el País, ..., por las Diputaciones y los Ayuntamientos". Tras leer las actas de los Congresos celebrados a comienzos de siglo es notorio que, frente a una *enseñanza estandarizada* y la educación de un individuo abstracto, se reivindicaba una escuela y unos docentes enraizados en su entorno, que respondieran a las necesidades educativas de los alumnos de Euskal Herria. Asimismo, la educación debía recoger las interrogantes, los problemas y la cultura de la sociedad vasca, siendo el objetivo de esa escuela nueva y vasca la educación integral del individuo. A fin de promover estos cambios se proponía la introducción de contenidos referidos a Euskal Herria, por ejemplo, su Historia y su Geografía.

Estas propuestas, hoy en alfa, a fines del siglo XX, no son únicamente aspiraciones. La reforma educativa actual ha incorporado y reglamentado las demandas de comienzos de siglo. Así, en diferentes documentos de la reforma se recogen las siguientes reflexiones o principios: "será misión de la escuela, educar en la cultura vasca, entendida desde una concepción dinámica, abierta e integrador".

- "Una de las funciones primordiales de la educación es, sin duda, la transmisión de los saberes que una sociedad estima deben ser conocidos por los alumnos y alumnas, y muy especialmente, del patrimonio cultural propio" (D.C.B. E.S.O. Introducción a la etapa. pag. 22)

Así pues, "Los aspectos más relevantes de la cultura vasca, aquellos que conforman su dinámica, su conflicto y su variedad, han de ser contemplados en las actividades de enseñanza-aprendizaje". En suma, se defiende "una concepción de la cultura escolar más ligada a las manifestaciones reales que se dan en el entorno inmediato y en la Sociedad en general. (D.C.B. E.S.O. Introducción a la etapa. pág. 36)

Teniendo en cuenta todo ello, uno de los objetivos que, según la legislación vigente, ha de cumplir la Escuela Pública Vasca, es "facilitar el descubrimiento por los alumnos de su identidad cultural como miembros del pueblo vasco mediante el conocimiento de su historia y cultura propias, fomentando el enraizamiento de los alumnos en su entorno geográfico, socioeconómico y cultural" (Ley de la Escuela Pública Vasca, 23 febrero 1993, pág. 34)

Este Congreso tiene como marco de referencia estos presupuestos planteados por la sociedad vasca actual en el marco de un debate general existente en el mundo occidental como es el de la apertura del curriculum al territorio y a la comunidad. A través de las aportaciones aquí planteadas esperamos que el esqueleto de la reforma vaya llenándose de contenido. De todas formas, el tema que abordamos no empieza ni termina aquí. Más bien requiere el trabajo continuado tanto de la administración educativa como de la sociedad en general. El Congreso desempeña un trabajo de mediación, facilitando caminos en el proceso de concreción del curriculum. Para ello, a través de un conjunto heterogéneo de áreas de conocimiento, temas, experiencias, ponentes y modelos interpretativos se ha querido ofrecer una visión amplia de los Estudios Vascos,

No obstante, surgen múltiples preguntas y más respuestas si cabe, siendo una de ellas clave: ¿Qué entendemos por estudios vascos?, ¿Cómo se pueden abordar en la escuela? ¿Qué problemas suscitan?

Creemos que las reflexiones de Fermín Barceló acerca de los problemas planteados en el epígrafe general del Congreso pueden ser significativas, ya que el es un buen conocedor de la escuela, de la reforma y de la cultura vasca,

Rafael LOPEZ ATXURRA

## O. SARRERA MODUAN

Hemen jorratu behar dugun gaia zabala da oso. Agian, zabalegia. Daraman izenburua besterik ez da ikusi behar: "Eusko ikaskuntzak curriculumean". Ia-ia Kongresuaren gai orokorra.

Zalantza ugari izan dut gaia, nolabait, mugatzeko. Ez ditut hemen zalantza horiek azalduko; bai, ordea, edukari jarri dizkiodan mugak.

Beraz, egingo dudun azalpenaren mugak, egitura eta helburua argitu nahiko nituzke hasiera honetan.

### M u g a k

Curriculumaren arloan hiru eremu ezberdinetan, gutxienez, mugitzen gara hemen gaudenok. Ez baitira berdinak Iparraldeko, Nafarroako edo Euskal Elkarteko testuinguruak. Gehiago ezagutzen dudalako, azken honetan murgilduko naiz bereziki, noiz-behinka beste eremuetara ere jo arren.


Gaurko curriculum-erreformek, bestalde, bai hezkuntza ez unibertsitarioak eta baita unibertsitarioak ere hartzen dituzte. Aipatutako arrazoi hori dela medio, curriculum ez unibertsitarioan arituko naiz ni.

Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren hezkuntza sistemen kanpoko curriculumez ere ez dugu hemen ezer esango, nahiz eta gure gaietan eragin zuzen-zuzena izan.

### Egitura

Ez dakit zer izango zuen buruan Nestor Basterretxeak, XII. Kongresu honetarako logotipoa asmatu zuenean. Niri irudi bat ekarri dit burura: amaigabeko bidea, norabide-aldaketak izan eta izango dituena, aldapan gora doana, bidegurutzetara eta guzti... Eta, agian, "carrefour" horretan gaude gaur gu.

Soma daitekeen bide horren harian ahalengindu naiz antolatzen hemengo azalpenak. Atzoko, gaurko eta biharko bideak jorratuko ditut, neurri batean edo bestean, ikuspegi ezberdinak erabiliz: historikoa, legala, eguneroko praktikarena...



Zenbait kasutan, apropos nahastu egingo ditut deskripzioak, balorazioak, iritzi pertsonalak... eta baita adibide konkretu batzuk ere, gure azalpena ideia orokorretara muga ez dadin.

## Helburua

Kongresu honen antolatzaileek aspaldian egindako eta emandako aurreproiektuan ziotenez, ponentzien helburua ez zen gai baten erabateko azalpena egitea, baizik eta arazoak, prozedurak, konponbideak, espektatiba berriak... azaltzea: ikuspegi praktikoagoa azaltzea, alegia. Ea helburu hori zenbateraino betetzen dugun!

Hel diezaiogun, ba, gaiari.

## 1. HURBILKETA HISTORIKOA

Ez dugu hemen geure hezkuntzaren ibilbide historikoaz luze ihardungo, lan hori egitea nahiko interesgarria iruditzen arren.

Duzuen laburpenean irakur dezakezuen, ibilbide historiko horretatik atera daitekeen ondorio probokatzailerik batera joko dugu zuzen-zuzenean, zenbait adibide eskainiz, ondorio hori indartzeko edo.

Hona hemen ondorioa: zerbait izatekotan, Euskal Herriko historian bigarren mailakoa izan dela, hain zuzen, gaur hemen jorratzen ari garen gaia; **gure herriak ez duela ardura handiegirik izan euskal kultura hezkuntz sistematan txertatzeko**; edo ardurara hori izan badu ere, oso gutxitan adierazi dela; edo adierazi denean ere, ia inoiz ez dela errealitatean hezurmamitu.

Eta hori esatean, bestalde, Eusko Ikaskuntzaren kongresuetan behin baino gehiagotan aldarrikatu dena azpimarratu baino ez dugu egiten: I. Kongresuan hasi eta gaur arte maiz errepikatu den leloa. Hona hemen, adibidez, Oñatiko I. kongresuan Luis de Eleizalde jaunak zioen:

*"Hay que decirlo, porque es la verdad: ese poco interés que los vascos han mostrado por la educación y la instrucción de su pueblo, ese interés tan escaso que casi puede calificarse de abandono total, de culpable negligencia, es una de las mayores manchas de nuestra historia, es la principal concausa de nuestra decadencia política y social, es la mayor urgente reparación que nosotros los vascos del siglo XX debemos a nuestro País y a nuestra raza..."*

Egia da, nahiz eta esandakoaren kontrakoa dirudien, makina bat ahalegin pertsonal aurki ditzakegula geure historian. Erakutsi zituzten kezkek edo egin zituzten ahaleginengatik, batzuen izenak gaurdaino gorde ditu gure historiak. Hona hemen, esaterako, aspaldiko batzuk: José Agustín Ibañez de la Rentería, edo Manuel de Aguirre, Jose Pablo Ulibarri, Agustín Pascual Iturriaga... Edo mende honen hasierakoak: aipatu berri dudan Luis de Eleizalde, Eduardo de Landeta...<sup>2</sup>

Egia da, baita ere, kultur kezka horrek sortu zituela zenbait erakunde historian zehar. Besteak beste, Real Sociedad Vascongada de Amigos del País elkarteak. Beharbada, adibiderik onena hementxe bertan dugu: Eusko Ikaskuntza, hain zuzen<sup>3</sup>.

Egia da, bestalde, gure herriko erakunde politikoek ere egin dituztela ahalegin batzuk zulo hori, nolabait, betetzeko. Horren adibide ditugu, hain zuzen, gerra aurreko auzo-eskolak<sup>4</sup>.


Bai, hori dena egia da.

Baina, neurri handi batean, adibide guzti hauek salbuespenak baino ez dira:

*"Tan raro era que las autoridades docentes favoreciesen el uso del idioma vernáculo, que cuando alguna vez se manifestó una tendencia propicia a la defensa de la lengua de la raza, se registro el caso como singular. Así por ejemplo, en la Revista Eu.skál-Erria se acoge con júbilo la reseña del acto de clausura de la Asamblea pedagógica celebrada en Vitoria el año 1884, en que el Inspector general D. Santos María Robledo aconsejó a los maestros que procurasen "onservar el idioma regional vascongado y mantener en el ánimo de sus alumnos el amor a los Fueros" <sup>5</sup>.*

"Salbuespenak" esan dugu. Eta badugu beste arrazoi bat ere salbuespenak izan direla esateko: egin diren ahalegin guztiek, arrazoi bat edo bestea dela medio, oso eragin txikia izan dutela Euskal Herriko hezkuntz sistemaren errealitatean, Historian zehar egindako proposamenak edo proiektuak ez baitira ia inoiz egia bihurtu.

Azken-azkeneko hamarkadak kenduta, aurreko ehun urteetan egin ziren ahalegin politikoak aztertuz gero, honako hau esan dezakegu: hiru izan direla, ahaleginetan behintzat, bereziki jorratu eta bultzatu diren gaiak. Nahiz eta hirurak, neurri batean, lotuta egon, bereiztu egin daitezke. Kronologikoki azalduko ditut hiru gai horiek:



<sup>0</sup> Lehenengo eta behin, helburu bat izan zuen gure erakundearen ahaleginak: maisu-maistrak bertakoak izaten jarrai zezatela; bertan haziak; bertako udalek kontratuak, ordu arte bezala. Baina, dakizuen, Moyano Legearen ostean, estatuari zegokion maisu-maistren izendatzea. Borroka horretan nafarrek zerbait lortu zuten; besteek, ordea, ezer ez.

<sup>0</sup> Bigarren ahalegin bat unibertsitate-arloan aurki dezakegu. Euskal Herrian unibertsitate bat lortzeko, zenbait momentutan bederen, eman ziren bultzada batzuk. Gainera, Eusko Ikaskuntza erakundeak ere ez zen borroka horretatik at ibili; proiektuaren bultzatzaile sutsua izan baitzen.

<sup>0</sup> Noiz-behinka (egia esateko, gutxitan) bultzatu izan den hirugarren gai bat ere badugu gure hezkuntz historian: euskararena, alegia. Aipatu ditudan hiru gaien artean, inongo zalantzarik gabe, azkena; gure erakunde politikoek euskararen bandera nahiko berandu hartu baitzuten.

Eta hori esateko, makropolitika dei dezakegunean aritu gara. Baina gauza bera esan dezakegu mikropolitika aztertuz gero ere. Horren lekuko, hona hemen nire herritik —bizi naizen udalerritik— ateratako hiru adibide nahiko esanguratsu.

<sup>0</sup> XIX. mendeko bigarren zatia aurrera zihoan eta, nonbait, kanpoko agintariek pentsatu zuten garaia zela herriko neskek ere eskola publikoa izan zezaten, muti-

1. ECHEGARAY, Bonifacio de: "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco", 33.or.

2. Ikus, esaterako, ARETA eta BENITO; ARRIEN; DOLARA; LASA; TOLEDO...

3. Ikus, esaterako, ARETA eta BENITO ESTORNES ZUBIZARRETA...

4. Ikus, ARRIEN, Gregorio: "Educación y escuelas de barriada de Bizkaia".

5. ECHEGARAY, Bonifacio de. Op. cit., 42. or.

lek aspaldian zuten bezala. Horrela pentsatu, erabaki eta egin. Beraz, maistra izendatu eta bertara bidali zuten. Soldata udalaren kontura. Baina 1874. urterako, gerrate karlistaren eragina nabarmena zen herriko finantzetan. Nonbaitetik murriztu behar gastuak eta: "En Ayuntamiento *gral de vecinos del día de ayer, en atención de la situación agobiada de esta Anteig<sup>a</sup> por las actuales circunstancias porque atraviesa el país, se acordó la supresión de la escuela pública que se halla bajo la dirección de V. y que se le destituya y se le despidió de su empleo de Maestra de la escuela pública de niñas, de la misma, al menos hasta que mejore de circunstancias este Ayuntamiento...*" . Ez zuen susto makala hartuko herriko lehenengo maistrak, noski, idazki hau hartu eta irakurtzean.

<sup>6</sup>Bigarren adibidea. Herriko eskolaren baliabideen zerrenda ia-ia urtero egiten zuen maisuak edo maistrak, 1888tik geroztik. Inbentario horiek aztertzea interesgarria da oso. Nire herrikoetan, esaterako, erdal kulturari buruzko makina bat liburu aurkitzen dira, bakoitzetik ale dexente gainera (<<doce *Plutarco de los niños; doce Escritura y Lenguaje de España; veinte "Juanito"; siete "Trabajador de la niñez"; doce "Cien españoles celebres"; tres historias sagradas; dos silabarios; un "Escritura al dictado"...*>>). Euskal kulturari buruz, bat baino ez dut aurkitu: Campionen gramatika, "*Una Gramática vascongada por Campión, bueno*", idatzi zuen herriko maisuak. "*Bueno*" idazterakoan ez zuen esan nahi, jakina, liburu ona zenik, baizik eta egoera onean zegoela<sup>7</sup>.

"Hirugarren adibidea askoz ere hurbilagokoa da. Dagoeneko ni neu herriko maisua nintzen eta euskara eskoletan sartzeko pausu batzuk ematen hasiak ziren. Udalaren erantzuna adierazgarria izan zen oso: euskara ez zela ezertarako sartu behar ikasgeletan; bertako neska-mutilek etxetik baitzekiten euskara eta, gainera, zenbait maisu-maistra euskaldunak ginenez, ikasleekin ulertzeko arazoren bat sortuz gero, erraz konponduko baikinen elkarrekin.

Hiru adibide baino ez dira. Baina ziur nago zuetariko askok antzerako adibideak ezagutu edo bizi izan dituzuela.

Beraz, arestian esandakoari eusten diot: gure herriak ez duela historian zehar ardura handiegirik erakutsi euskal kultura hezkuntz sisteman txertatzeko.

Gainera, ziur aski konturatu zaretenez, zaku berean sartu ditut unibertsitatea, hezkuntza, euskara, edota bertako maisu-maistrak izateko ahaleginak. Zilegi bai baiteritzot horri. Baina izenburuko "eusko ikaskuntzak curriculumean" hori gaurko ikusmolde zabaletik begiratuz gero, euskara zati bat besterik ez litzateke izango; eta arestiko ondorioa askoz ere nabarmenago azalduko.

Egia da, jakina, gaurko curriculumaren luze-zabala ezin dela antzinakoarekin parekatu (irakurri, idatzi, aritmetika, erlijioa...). Baina egia da, bestalde, euskaraz irakastea ez dela nahikoa eusko ikaskuntzak curriculumaren parte direla esate-

6. Berrizko udal-artxibategian, irakaskuntza atalean, 7. tomoan, "Sr. Presidente de la Junta de Instrucción Primaria de la Provincia de Vizcaya", izenburuz 1876. urtean bidalitako eskabidea. Eskuizkribua.

7. "Escuela pública de niños de Berriz. Inventario de todos los.../ 20 de Octubre de 1888". Berrizko udal-artxibategian, irakaskuntza atalean, 7 tomoan. Beste urteetako inbentarioek ere (1893, 1895, 1900, 1909, 1910, 1937) antzerako egoera erakusten digute.

ko ere. Eta historian bertan baditugu bereizketa hori mantentzeko adibide batzuk, bitxi samarrak badira ere.

*"En la educación escolar, cultural, de Vasconia, no se ha usado la lengua propia, la lengua vasca, como vehículo de la educación y de la enseñanza. Se encuentran casos aislados, raros, de la enseñanza de la cultura latina, de la cultura francesa, y de la cultura española por el vehículo de la lengua patria; Johannes d'Etcheberry, algunos Manuales, como los de Astigarraga, y algunos maestros de Laburdi del siglo pasado, son prueba de ello. Son casos rarísimos"* <sup>8</sup>.

Baina, bada garaia gure buruari galdetzeko: zergatik hori? Zergatik arduragabekeria hori? Beste herri batzuetan nabarmenagoa izan den kezka eta ardura, zergatik hemen hain ahula edo berantiarra?

Egia esateko, ez dut galdera horientzako erantzun zehatzik. Bai, ordea, susmo batzuk.

Erantzunkizun guztia besteren eskuetan uzten dugu behin baino gehiagotan, geure burua zurituz. Horrela, hezkuntz sistema propioa ez izateari leporatuko genioke akats honen erru guztia, egia baita kompetentzia urriak izan dituela gure herriak urte luzeetan hezkuntzaren arloan... Arrazoi honek, nire ustez, gaiaren zati bat argi dezake, baina ez osoa.

Arrazoi sakonagoak egon daitezke. Esaterako: herri batek, garai jakin batean, hezkuntz sistemari eskatzen diona edo hezkuntz sistema horretan duen konfidantza. Derrigorrezko eskolarizazioa joan zen mendeko apustua izan zen gure inguruan, familiari zegozkion funtzio batzuk eskolara pasa nahian. Apustu horrek behar ekomiko jakin batzuei erantzun nahi zien. Baina nekazari- giroan, esaterako, behar ekonomiko horiek ez dira hain argi ikusten; familiak ohizko funtzioak betetzen jarrai dezake, edo berak eman nahi dion baino askoz gutxiago eskatzen dio hezkuntz sistemari... Ildo honetatik jarraituz, argi daiteke, nire iritziz, Euskal Herriak, zenbait momentutan, hezkuntz sistemarekiko izan duen jarrera.

Beste bide bat ere ikusten dut argigarri. Zer da lehenengo: oiloa ala arraultza? Hau da, gure herriak ez duela ardura handirik erakutsi bere kultura eskoletan ikusteko ala, bere kultura propioa bertan islatua ikusi ez duelako, hain zuzen, ez duela ardura handirik izan hezkuntz sistemarekiko?


Eta galdera hauek, horrela utzi ondoren, historiako bide-etatik irten eta gaurko egoerara joko dugu. Baina pauso hori eman baino lehen, eta egia esateko, azken hamarkada hauetan marraztutako panorama dexente aldatu dela esan beharra dago.

## 2. GAURKO MARKO LEGALA

Indarrean dugun legearen mailan arituko garenez, gauza ahaztu ezin bat gogoratu behar hasiera-hasieratik: Euskal Herriko hezkuntz sistema hiru marko juridiko ezberdinetan kokatzen dela. Euskal Elkarteak eta Nafarroak gaur egun dituzten hezkuntz kompetentziak, egia esateko, antzekoak dira, nahiz eta iturri ezberdinak izan: batean, Estatutua; bestean "Amejoramiento" delakoaren legea. Iparraldeko hezkuntz sistemak, ordea, egitura zentralistago baten menpean jarraitzen du.

Baina gauza bat da kompetentziak izatea eta bestea kompetentziak erabiltzea; edo, bestela esanda, kompetentzia horiek nola erabiltzen diren. Bigarren ikuspuntu horri deritzot interesgarriagoa mahaigaineratzeko.

8. OLANO, Aniceto de: "Pedagogía vasca. Existe el problema. - Interesa el problema. Hay que solucionarlo". 40. or.




Gure gaurko gaiaren inguruan (beraz, eusko ikaskuntzak curriculumean txertatzeko), konpetentziekin zer egin den ikusteko, eta oraingo erreforma berria alhora utziz, bi puntu aztertzea iruditzen zait egokien:

- \* sortu diren programak: **hezkuntz programak**, alegia;
- \* bultzatu diren **curriculum-baliabideak**, materialak.

\* 1978tik hona, Espainia aldean behintzat, makina bat aukera izan da programak aldatzeko; izan ere, urte hauetako erreforma-ahalegin gehienek curriculum berritzea izan dute xede. Hona hemen, horren lekuko, goiko zikloan egindako esperimentera, ertainetan REM izenez ezagutu dena, edo unibertsitateko agiri berriei ematen ari dena.

Baina adibide interesgarria, nire ustez, programa berriekin ("programas renovados" delakoekin) eman zen aurreko hamarkadan. Esan dezakegu, zalantzarik gabe, programa berriena izan zela Euskal Elkarteak izandako lehenengo aukera historikoa curriculum propioaren bidea jorratzeko; edo, hobeto esanda, curriculum propioa arautzeko. Eta alde horretatik interesgarria da oso, noski, bide horren mugak eta emaitzak ere erakusteko: nahikoa da horretarako Agintaritzaren Aldizkariko aginduak eta eskoletara bidalitako liburu urdinak arakatzea (ziklo eta arlo ezberdinetako orientabideak). Ahalegina egin zen. Zenbait arlotan, behintzat, euskal gaiak sartzeko ahalegina nabarmena da oso<sup>9</sup>.



\* Eskoletan erabiltzen diren curriculum-materiales ere (testu liburuez, batipat) aritzea komenigarria da oso, azken batean irakasle eta ikasle askorentzat horietan baitatza curriculumaren hezurmamitzea. Puntu honetan Euskal Elkarteak

9. Ikus E.H.A.A.n argitaratuko aginduak (1981.eko maiatzaren 25eko Agindua, E.H.A.A. 1981-6-25/ 1982.eko maiatzaren 11ko Agindua, E.H.A.A. 1982-7-1) eta ziklo eta arlo bakoitzarako egindako orientabideak ("liburu urdinetan", 3. zenbakitik hasi eta 22.a arte, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua).

eta Nafarroak hartutako bideak ez datoz bat, eta bide bakoitzak ondorio ezberdinak izan ditu.

\*\*\*

Baina goazen oraingo erreformarekin; zehatzago, **curriculum-erreforma** berriarekin.

Eusko ikaskuntzen trataeran eragina zuzena izango dutelakoan, erreforma honek dakartzan hiru puntu "berri" aipatu edo azpimarratu nahi ditut:

- \* konkrezio-mailak;
- \* ikas-edukiaren tipologia;
- \* zehar-lerroak.

**\* Konkrezio-mailak**

Denok dakigunez, hiruzpalau maila desberdin bereizten ditu erreforma honek: estatuari dagokiona; elkarte autonomoari dagokiona; ikastetxearena; eta irakasleari, edo irakasle-taldeari, dagokion azken konkrezioa.

Lehenengo bi mailetan, guztientzako derrigorrezkoak diren helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak finkatzen dira, dekretuetan finkatu ere.

Ikastetxearen maila sendotzeak talde-lan ikaragarria suposatuko du; gelaren mailakoak, berriz, irakasleen prestakuntza, lana eta baliabideen ugaltzea beharra.

Itzuliko gara geroxeago puntu hauetara.

**\* Ikas-edukiaren tipologia**


Orain arteko programetan, eduki kontzeptualen pisua nabarmena zen oso. Oraindik ere eduki ezberdinen arteko oreka lortu nahi omen da: kontzeptuak bai, baina baita prozedurak eta baloreak ere. Gainean dugu, beraz, Frantziako iraultza garaian Concordet jaunak sortutako baloreen eztabaida eta oraindik isildu ez dena.

Eta planteamentu honek bete-betean harrapatuko gaitu. Amamaren semearena dirudi: nahikoa lan ez euskal ikuspegitik eduki kontzeptualak finkatzen, eta hona hemen beste lan bat: orain prozedurak eta baloreak bilatu behar! Ea beste egunetako hizlariak honi buruzko argi apurra eskaintzen diguten; nik behintzat ilun samar ikusten dut bidea.

\* Zehar-lerroen planteamendu berriaz ere antzerako zerbait esan daiteke. Bide hori jorratzea erraza behintzat ez dela izango. Eta eusko ikaskuntzen ikuspegitik, beste desafio baten aurrean gaudela.

\*\*\*

Azken urteetako esperientziak honako hau esaten dit: eusko ikaskuntzak curriculumean txertatzeko dituen **arazoak**, hain zuzen, **plano ezberdinetakoak** direla (juridikoak, politikoak, pedagogikoak, ekonomikoak...), eta plano horiek, gehienetan, nahastuak ematen direla. Urte hauetan izan ditugu, zalantzarik gabe, esandakoa frogatzeko adina adibide. Hona hemen, komentariarik gabe, horietariko batzuk.



— Orain dozena bat urte, gizarte-arloko programa berri-tuak finkatzerako orduan, “Euskal Herria” (arlotan fisikoan, ekonomikoan, kulturalen) zazpi probintzia bezala ulertu behar zela jarri genuen Euskal Elkartearen programa ofizialetan. Garai hartako estaduko gobernuak tribunaletara jo zuen, eta hauek hemen finkatutakoa legezkoa zela erabaki. Baina begiratu, arren, eskoletan erabili diren, eta erabiltzen diren, gizarte-arloko liburuak; eta denetariko ikusiko duzue: argitaletxe bakoitzak nahi duen eran azaltzen du Euskal Herria, eta den-denak legeztatuak dituzte beren liburuak.

— Beste adibide bat. Euskal Eskola Publikoaren lege berri eta eztabaidatua egiterako orduan, honako helburu hau jarri zen eskola hauentzat, hitzez-hitz: *“Euskal Herriko kide direnez ikasleek duten kultur-nortasuna mamitzen laguntzea, ikasleen geografiazko, gizarte-ekonomiazko eta kulturazko ingurunean errotzea bultzatuz”*<sup>10</sup>. Inork ez zuen argudiatu hau legez kanpoko zenik. Halere, talde politiko batek atal hori kentzea ezinbestekotzat jo zuen legegari baiezkua emateko.

— Beste bat. Erreformatarako curriculum berrietan euskal kulturaren gaiak eta edukiak sartzeko hiru aukera aztertu ziren Euskal Elkartearen, eta hirurak eztabaidatu: 1) euskal kulturari buruzko bloke berezi bat jarri aparte; 2) eduki horiek bloke orokorretan banan-banan txertatu; eta 3) zehar-lerroko statusa eman euskal kulturari edo euskal gaiari. Azkenean, aurreneko aukera biek in jokatu da, hezkuntza maila ezberdinen arabera. Orain arteko curriculum-proposamen ofizialetan, bloke orokorretan sartu dira euskal kulturari buruzko edukiak.

Adibide batzuk besterik ez dira izan; baina beste adibide asko jarri daitezke hauek bezala, plano juridikoa, politikoa, ekonomikoa edo pedagogikoa askotan nahastu egiten direla erakusteko.

\*\*\*

Lehen aipatu dugun puntu batera itzuli nahi dut orain: konkrezio-mailetara, alegia.

Lehen esan dudanez, hiruzpalau maila desberdin bereizten ditu erreformak; eta lehenengo bi mailetan (estaduari eta elkarte autonomoari dagozkien mailetan, alegia) derrigorrezkoak diren helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak finkatzen dira. Dagoeneko, maila batzuentzako curriculum-dekretuak kalean daude. Beste batzuk labetik ateratzeko prest. Badugu nahikoa datu, beraz, jakiteko erreforma honek, curriculum finkatzeko konpetentzi banaketa berri honek, zer joko uzten duen gure eskuetan: “gutxienezko edukiek” uzten dizkiguten benetako posibilitateak eta mugak ezagutzeko, alegia.

Ziur nago puntu honen inguruan eztabaida bitxia sor daitkeela hemen. Azken batean, maila eta arlo ezberdinetako curriculum-diseinuak finkatzeko parte hartu duten gehienek hementxe bertan jesarrita daude eta. Beraiek dakite, inork baino hobeto, non aurkitu duten bide estua (agian, estuegia) eta non zabalagoa.

Lan hori, neurri handi batean behintzat (derrigorrezko mailetan), bukatutzat eman daiteke oraingoz. Eta esan daiteke, zalantzarik gabe, islatuak geratu direla euskal gaiak geure programetan.

Baina **beste bi konkrezio-maila** ere bereiztu ditugu lehen, batzuetan ahaztu egiten direnak: **ikastetxearena eta ikasgela-rena**. Eta ikastetxearen maila sendotzeak talde-lan ikaragarria suposatuko duela esan dugu, Gelaren mailakoak, berriz, irakasleen prestakuntza, lana eta baliabideen ugalduta beharra eskatzen dituela.

Lehen esan duguna, hain zuzen, berriro esan eta azpimarratu nahi dugu. Erronka zail samarraren aurrean gaudela-konko nago. Urte ta piku daramagu Ikastetxearen Curriculum-Proiektuen ildotik, tresna horien generalizazioa lortzeko asmoz, eta dagoeneko denok ikasi dugu, bai aholkulari-lanetan aritzen direnek eta bai ikastetxeetako irakasleek ere, proiektu horiek burutzea ez dela nolana izango.


**Eusko ikaskuntzen ikuspegiak momentu ezin egokiagoa** dirudi, baina funtsez-futsezkoa da, espektatiba berriak nahiko era zabalean egia bihurtzeko, edo frustrazioan ez jausteko, gutxienezko bi baldintza betetzeko:

. Bakoitzak (ikuspegi hauetan ados gaudenok) geure gelaren hormak gainditu eta ikastetxearen proiektuetan eragina izan.

. Eusko ikaskuntzak islatzen dituzten curriculum-materialeen aberastasuna gehitu. Edo, bestela esanda: ikastetxe eta irakasle erraztasunak eskaini.

Ikastetxe maila honi, nire ustez, arreta berezia eskaini beharko genioke. Erreformak ematen dituen ordutegien posibilitateak konturatu al da norbait? Arlo batzuk eta ordu batzuk, jakina, finkatuak geratzen dira ikastetxe guztientzat. Baina finkatu barik geratzen dira beste zenbait ordu eta aukerakotasunaren esparru zabala. Ikastetxe mailan, beraz, badugu aukera dexente geure ikuspegiak aurrera ateratzeko.

\*\*\*



Ez dakit hemen beharrezko den ala ez; baina, agian, heldu da hiru galdera xume egiteko garaia. Hauxek dira plazaratu nahi ditudan hiru galderok.

### 3. HIRU GALDERA XUME: zergatik, zer, nola eusko ikaskuntzak curriculumean?

#### Zergatik?

Zergatik eusko ikaskuntzak curriculumean? Ba al du zentzurik horrelako planteamendua XXI. mendearen atarian, Europa batuaren aurrean, kultur arloko “aldea global” bizi omen garen honetan?

Dakizuen bezala, oraingo eztabaideetan pil-pileko gaiak beste bideetatik doaz: multikulturalismoa, interkulturalismoa, plurikulturalismoa, interdependentsia, hezkuntza programen europar izaria... (dimensión europea de los programas escolares)<sup>11</sup>. Bertoko gaiak eta ikuspegiak lantzea “entornalismo” hutsa dela esaten du batek baino gehiagok.

11. Ikus, esaterako, “Educación Intercultural en la Perspectiva de la Europa Unida”. X Congreso Nacional de Pedagogía. Salamanca, Sociedad Española de Pedagogía.

10. 1/1993 Legea, E.H.A.A. 1993-2-25ean, 3.h. atalean.

Badirudi Euskal Herriko zoritzarrezko patua dela hau. Besteak bueltan datozenerako, gu oraindik bide erdia egin barik..., edo hasi berriak.

Punta-puntan dabilen Apple jauna, esate baterako, orain pare bat hilabete emandako hitzaldian, currículum nazionalaren ezarpenean berak ikusten zituen arazoak eta arrisku larriak azaltzen ahalegindu zen<sup>12</sup>.

Badakit aipatutako ideologi korrante horiek bultzatu nahi dutena askotan ez datorrela gure planteamenduaren kontra. Baina beti defentsan ibili behar. Eta euskal ikaskuntzen presentzia hezkuntz currículumean, nolabait, defendatu beharrean sentitzen gara.

Arazoi asko aipa daitezke gure planteamenduaren defentsan. Nik besteren hitzak erabili nahi ditut horretarako.

Gimeno Sacristán irakasle ezagunak, esate baterako, zera die:

*"En tanto un grupo social no vea reflejada su cultura en la escolaridad o lo vea menos que otros, estamos, sencillamente, ante un problema de igualdad de oportunidades"*<sup>13</sup>.

Kultura minorizatuei buruz ari da testu horretan Gimeno, ijitoen kultura bazteruari buruz hain zuzen; baina guk geure kulturari aplika dakiokegu esandakoa. Beraz, badugu gure defentsarako arrazoi bat: besteak adina berdintasun-aukera.

Bestalde, Europa aldean jotzen duten baize guztiek ere ez dute mendebaldetik jotzen. Gure belarrietako baize goxoa- goak ere badaude. Horra her, esaterako, orain urte bete Edinburgen (Eskozian), *"Kukuralki zuzendutako ekonomi rrreraturantz. Kultur aniztasunaren babesa Maastrichten ostean"* izenarekin izan zen mintegia. Mintegi horren kezka eta helburu nagusienetarikoa honako hau izan zen: nola bermatu Europan dagoen kultur aniztasuna. Maastricht-eko Hitzarmenak ere honela die: *"Elkarteak Estatu Kideen kulturen loratzean lan egingo du, nazio eta erregio aniztasuna errespetatuz, eta denbora berean Europako ondare amankomuna azpimarratuz"*<sup>14</sup>.

Beraz, ez dirudi hain oker gabiltzanik. Maastricht ere, atal txiki eta labur batean bederen, gure aide dugu.

Erreforma honek lortu nahi duen gauza bat hau da: eskolan lantzen diren gaiak ingurunearekin lotuta egotea, inguruko gizartearen ematen diren eskakizun kulturelei erantzuteko. Hortik abiatuz, Euskal Elkartearen oinarritzko currículum-diseinuak argi asko uzten du gaiak. Honelaxe die:

*"Hezkuntzaren betekizun garrantzizkoenetako bat, zalantzarik gabe, gizarte batek here ikasleek ikasi beharrezkotzat jotzen dituen jakiteak transmititzea da, eta oso bereziki, kultur ondare propioa, herri baten dinamika historikoa eta itxaropenak isladatzen direneko erreferentzi marko oinarritzotzat."*

*Hau dale eta, eskolaran betekizuna izango da euskal kulturaren hezitzea, ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzaile batetik ulerturik. (...)*

*Eskolak bere betekizun sozializatzaile eta integratzailetik pertsona autonomo, kritikoa, solidario eta partehartzaileak prestatzea du helburu. Ikuspegi historiko batean hezi behar du sustraiak sendotzera, identitatea finkatzera eramanez, etorkizunaren eraikuntzan aurrera egin eta garatzen den kultur berreraiketazko dinamika batetik"*<sup>15</sup>.

Hau dena irakurri ondoren, uste dut baditugula geure defentsarako arrazoi nahikoak. Nahikoak eta, aldi berean, denak sobran. Gure klasiko batzuek antzerak arazo baten aurrean ematen zuten erantzuna sinplea zen oso. Eta erantzun posible guztien artean sinple horiekin geratzen naiz ni. Bi adibide jarriko ditut.

Errepublikara garaia zen: 1932 urtea. Ikastola-Batzaren maistrek ikastaro bat izan zuten Bilbon. Bertan, besteak beste, aita Donostiak hartu zuen parte, euskal musika euskal eskoletan txertatzeaz. Horrela mintzatu zen Aita Donostia:

*"No me parece que hagan falta largos discursos para demostrar la necesidad, la obligación, la conveniencia de que los maestros y maestras vascas han de tener en sus manos la formación musical de los niños euskaldunes y aporten sus entusiasmos a la divulgación, al renacimiento de nuestra canción popular. Primero por nuestra. Este argumento basta por sí sólo para que caigamos en cuenta de la importancia que tiene el cultivo de la canción popular... Una canción popular vasca es para el euskaldun la canción de lo más íntimo de su alma..."*<sup>16</sup>.

Bigarren adibidea, berriz, Pio Barojarengandik hartu ditut. Euskal munduaren isla zoragarria den *"La leyenda de Jaun de Alzate"* eleberriararen atarian, honela idatzi zuen gure Pio Barojak:

*"Ciertamente nuestro rincón del Bidasoa no tiene brillante cultura, ni esplendorosa historia; no hay en él grandes montes, ni grandes vanes, ni magníficas ciudades; pero no por eso dejan de cantar los ruiseñores en las enramadas las noches de verano y las alondras en los prados la mañanas de sol."*

*Para nosotros, los entusiastas de esta tierra, es (...) como una canción dulce, ligera, conocida, siempre vieja y siempre nueva."*

*Este clima mudable y cambiante se armoniza con el tono de nuestro espíritu; su versatilidad nos halaga y nos distrae, y la preferimos, con mucho, a la inmovilidad pomposa de otras tierras y de otros climas"*<sup>17</sup>.

Beraz, nire ustez, ez dugu Larramendik euskara defendatzeko hartutako bide okerretik jo behar. Ez dugu denbora galdu behar bertako kultura, esaterako, besteren adinakoa edo hobe denik frogatzen. Ez. Gurea da, bertako ikuspegia da, eta ikuspegi hori ezagutu nahi dugu. Kitto! Gure burua ulertzeko ikuspegi hori ezagutzea beharrezkoa delako, hain zuzen.

Erantzunda gera bedi, ba, lehenengo galdera. Agian, zailagoa izango dugu bigarrenarentzako erantzun egokia bilatzea.

## Zer euskal ikaskuntza currículumean?

Zer euskal kultura? Zer hezkuntz kultura? Euskal Herrian, badugu erantzun amankomunik funtsezko galdera hauentzat?

Ezetz esango nuke. Ikuspegi desberdinak, batzuetan kontrajarriak, daudela dirudi.

Egin dezagun aproba txiki bat irudien laguntzaz. Gure ikuspuntutik begiratuta, eusko ikaskuntzak kontuan harturik, zer sartuko genuke guk hezkuntz currículumean? Zehatzago oraindik: zeri emango genioke pisu handiagoa ala txikiagoa? Egin galdera horiek, mesedez, zeuen buruari honako irudi hauen aurrean.

Hemen gaudenok ikusmolde antzerakoa badugu ere, ezin ahaztu, noski, badela hormaren beste aldean makina bat

12. "Conocimiento oficial" izenburupean emandako hitzaldia. A Coruña, irailaren 30ean, Congreso Internacional de Didáctica.

13. GIMENO, J. "Currículum y diversidad cultural", 49. or.

14. Maastricht-eko Hitzarmenaren 128 atalean. KNÖRREK Endrikek aipatua, 4. or.

15. Derrigorrezko bigarren hezkuntzarako Oinarritzko Currículum Diseinuaren sarrera, 22 or.

16. DONOSTIA, P. Jose A. de: "La Música en las Escuelas Vascas", 467. or.

17. Baroja, Pío: "La leyenda de Jaun de Alzate", 14. or.

jende eta irakasle, gauza guzti hauen aurrian ikuspegi arras ezberdina dutena.

Eta, alde batetik, horrela izatea normala da.

Gimenok dioen beste zerbait ekarriko dut berriro gogora:

*"Toda cultura es en sí misma plural. (...) Lo que se presenta más homogéneo dentro de cada cultura es el 'relato' que hace cada grupo cultural —los individuos que pueden y que están capacitados para hacerlo de lo que entiende como propia cultura, el cómo un grupo se representa a sí mismo su identidad cultural; esa homogeneidad se traduce en una simplificación del 'texto' que se elabora para reproducirla, centrado en los aspectos que los que deciden consideran esenciales. Uno de esos 'textos' es el currículum escolar"*<sup>18</sup>.

**Gutziz garrantzitsua iruditzen zait edozein kulturaren baitan dagoen aniztasun hori onartzea, kontuan izatea eta eskoletan, ahal dugun neurrian, islatzea.** Eta ideia hau indartu besterik ez da egiten Euskal Herriko egoerari, euskal kulturaren egoerari eta beste herriei begiraturaz, gain-gainean dugun etorkizuna kontuan hartzen badugu.

Horregatik, hain zuzen, oinarrizko curriculum-diseinuak esaten zuena:

*"Hau dela eta, eskolaren betekizuna izango da euskal kulturaren hezitzea, ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzaile batetik ulerturik..."*

Horregatik, hain zuzen, aldarrikatu behar da gaur ere, inoiz baino ozenago. Eusko Ikaskuntza, erakunde bezala, betidanik defendatu duen ikuspegi zabalak. Begiratu zer dioen, bestela, dagoeneko 75 urte bete duen arautegiaren 1. atalak, edo zer idatzi zuen orain denbora gutxi bere partaide batek:

*"Euskal Herria maite duten eta bere nortasuna —behar beharrezkoa den Ikaskuntzaren bidez— lortu nahi duten guztiak biltzea da Eusko Ikaskuntzaren xedea. Helburu honi begira, elkarte honek, Euskal Herriko gaiak erabiliko ditu bereziki, baina baita gure herrirako egoki diren edonongo kultur gaiak ere"*<sup>19</sup>.

*\* "Beharrezkoa da euskal kulturaren orokortasuna bere osoan berreskuratzea, bere ikusmugetaraino iritsiz. Osterantzean, azientifikoa eta bat ere erreala ez den murrizketan erortzeko arriskua dago. Ezinbestekoa da euskaldunek bere kulturaren osotasunarekin duten kultur bategiteari berrekitea eta honen osagirik garrantzikoaren balorazio neurtua egitea. (...) Gaur egun, adibidez, defendaezina da autore euskaldun multzo dexente batek, jarrera ideologizatuetatik abiatuta, eta Europarentzat Pizkundera bezain erabakiorra izan den garai historikoa aztertzeke orduan, euskal kultur ondarearen alderdirik aberatsena ahaztu izana, berau ere pobretuz, zer eta ustezko 'heterodoxia'ik babesteko"*<sup>20</sup>.

Dena dela, esan beharra dago curriculum-proposamenak eskatzen digun "ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzailea" ez dela ohizko produktua gure dendetan, ezta beste denda askotan ere.

Aniztasunaren onarpenean, gure kulturaren ikuspegi zabalean, edo euskal ikaskuntzen eta jakintza orokorraren harreman eta loturetan sakondu behar da, hezkuntz curriculumean ematen dugun ikuspegia baliogarria izatea lortuko badugu.

Bazegoen hirugarren galdera bat

## Nola?

Nola txertatu eusko ikaskuntzak curriculumean? Nola landu eusko ikaskuntzak gure eskoletan? Nola erabaki zeintzuk diren eduki egokienak maila honetarako edo beste horretarako? Arloz arloko ikuspegiak ala disziplinen artekoak? Nola erdietsi lortu beharreko helburuak? Nola bihurtu egia gure asmoak?...

Ziur aski hemen bildu garenei gehien interesatzen zaigun galdera: "Nola?" Baina galdera honi erantzuna emateko hiru eguneko kongresua dugu, hain zuzen, eta ez litzateke ondo egongo lehenengo orduan eta inongo lotsarik gabe nik ematea.

Azken finean, hasierako ponentzia bati dagokion funtzioa, nire ustez, galderak sortaraztea da, erantzunak ematea baino.

## 4. IKASTETXEEN ERREALITATEARI HURBILKETA

*"Cuando pensamos y decidimos sobre un currículum hay, al menos, dos formas de definirlo:*

*— Como 'aquello que debería ocurrir en una escuela y en sus aulas'.*

*— Como 'aquello que realmente está ocurriendo en una escuela y en sus aulas'*<sup>21</sup>.

Dino Salinas irakasleak idatzi zuen hau, ziur aski gehienok irakurri duzuen artikulua batean.

Orain arte eman dugun ikuspegia guztiz herrena da gure gaiari eusteko. Ikuspegi historikoak edo legalak, agian, ondo datozkigu gaia behar den lekuan kokatzeko. Baina ez dira nahikoak. Zerbait aldatu nahi badugu, errealitatea aldatu nahi dugu, eta ez legalitatea soilik.

Bereizketa bera egin zuen Stenhousek (1984). Eta Gimeno (1991) honako hau dio: ikuspuntu pedagogikotik garrantzitsuak ez dira curriculumean sartu nahi ditugun asmoak edo egiten ditugun deklarazioak, ikasleak bizi duen esperientzia baizik. Horrela —jarraitzen du berak—, *"la idea de currículum real nos llevarla a analizar el lenguaje de los profesores, los ejemplos que utiliza para explicar cualquier materia, sus actitudes hacia las minorías o culturas, las relaciones sociales entre los alumnos, las formas de agrupar a éstos, las prácticas de juego fuera de la clase, los estereotipos que se divulgan a través de los libros, lo que se exige en la evaluación..."*<sup>22</sup>.

Benetan, pista interesgarriak: irakasleen hizkera, erabiltzen dituzten adibideak, euren jarrerak... Baina, gauza guzti hauetaz, ba al dakigu zerbait?

Irakasle garenok ondo asko dakigu, garai berean eta legalitate beraren menpean, zer-nolako aldea izaten den, edo izan daitekeen, hemengo ikastetxean emandako curriculumetik hango ikastetxean emandakora: eduki kontzeptualetan, prozeduretan eta irakasten diren baloretan. Gehiago esango nuke: ikastetxe berean eta ikasturte berean, irakasle batek eman dezaken ikuspegia guztiz ezberdina izan daitekeela beste irakasle batek ematen duenaren ondoan.

Esan dezakegu, zalantzarik gabe, ikastetxe edo irakasle bakoitzak bere curriculum-historia propioa duela,

Eta Stenhousek (1987) idatzi zuen bezala, curriculumaren historian ez dago etenik; alda daitezke -errotik aldatu ere—

18. GIMENO, J.: op. cit., 56. or.

19. Eusko Ikaskuntzaren arautegiaren 1. artikulua.

20. URZAINQUI, Tomás: "1918-1993: Eusko Ikaskuntzaren betekizun europar berria", 4. or.


21. SALINAS, Dino: "¿Cómo pensamos un currículum para el curso que viene?", 73. or.

22. GIMENO, J.: op. cit., 51. or.



currículum-proposamen ofizialak, baina eguneroko praktika ez da egun batetik bestera aldatzen; inoiz ez baita hutsetik abiatzen; historia eta tradizio batetik abiatzen baita beti.

Egia esateko, eta hasieran adierazi dugunez, gure abiapuntua, gure historia -eusko ikaskuntza currículumean izan duten historia, hain zuzen, ez da kanpaiak jotzen hasteko modukoa. Tira, Baina horixe da, hain zuzen, daukagun abiapuntu bakarra. Hortik abiatuz eman beharko ditugu aurrerapausuak. Nola aurreratu? Nondik hasi?



*"La clave de cualquier estrategia está para nosotros en cuatro puntos fundamentales, que lo son en cualquier situación en la que se plantea la reforma del currículum: a) formación de profesores, b) diseño de los currícula, c) desarrollo de materiales apropiados, d) análisis y revisión crítica de las prácticas vigentes..."*<sup>23</sup>

Funtsezko lau puntu horietatik bitan arituko naiz hemen, laburki bederen: irakasleak eta currículum-materialak.

### • Irakasleak

Aipatutako arlo biak elkarrekin lotuta azaltzen ziren, estu lotuta azaldu ere, 1933. urtean Bernardo Estornes Lasak idatzitako testu batean. Artikulua, hain zuzen, berak egindako Euskal Herriko historiari buruzko eskola-liburuaren azalpen gisa idatzi zuen eta Jakintza aldizkarian argitaratu. Horrela zioen:

*"Pero en el País Vasco se nos presenta otro problema. El maestro vasco ha formado su cultura en escuelas del Estado y en la lengua oficial del mismo. En los planes de estudios cursados por aquel no se dice nada referente a la cultura vasca, y, aún cuando él, particularmente, haya querido adquirirla, se ha encontrado con que le faltaba un simple manual, bueno o malo, donde dar los primeros pasos de iniciación"*<sup>24</sup>.


Zorionez, eta 60 urte alferrik pasa ez direnez, gauzak dexente aldatu dira, bai irakasleagan eta baita materialetan ere. Dagoeneko ez dugu, nahitanahiez, gure apunteak asmatzen eta ateratzen ibili behar eroen moduan.

Aldatu da, dudarik gabe, Euskal Herriko irakasleagoa,..., baina gure gaurko gaiaren inguruan noraino aldatu den ez dakigu. Eta, oraingoz, zerbait jakiteko daukagun era bakarra zeharkako bideetara jotzea da.

Zeharkako bide bat, esaterako, irakasleagoaren prestakuntza-planak aztertzea izango litzateke: hasierako prestakuntzarako planak eta prestakuntza iraunkorrerako planak; unibertsitatearenak, administrazioarenak, erakunde ezberdinenak... Ez naiz ausartzen ondorioak ateratzen, baina -euskarren arloan salbu— ez dut uste lan baikor izango liratekeenik.

23. GIMENO, J.: op cit, 62. or.

24. ESTORNES LASA, Bernardo "La historia vasca en la escuela primaria", 47. or.



Zeharkako beste bide bat, berriz, gai honen aurrean irakasleek dituzten jarrerak aztertzea izango litzateke. Ez dakit bide honetatik inor sartu den.

Beste bide bat, hau ere zeharkakoa, irakasleen ideologi eta atxekimendu politikoa aztertzea izango litzateke, aditu askok lotura estuak aurkitu baitituzte planteamendu pedagogiko eta horien artean. Pena da, baina orain pare bat urte irakasleei egin genien inkesta zabal batean ez genuen honi buruzko ezer galdetu. Euskarari buruz, bai, eta horretaz pentsatzen dutenari buruz zerbait gehiago dakigu; baina eusko ikasketzek, zentzu zabal batean, euskararen mugak gantitzen dituzte.

Badugu esku-eskura, erreformari esker eta gauzak ez badira okertzen, aukera historiko bat geure gairi eusteko, zeharkako edo ez hain zeharkako bide berri bat: ikasketxearen currículum-proiektuak ikuspuntu honetatik aztertzea.

*"Desde la actual reforma del currículum y, si se me permite la expresión, 'de una misma tacada', se nos propone un currículum oficial autodefinido como abierto y flexible y, al tiempo, se emplaza a los claustros de los centros a que adapten —que concreten— esas propuestas oficiales a la realidad propia de cada centro, a través del llamado Proyecto Curricular de Centro. Esto supone un cambio con respecto a la tradición, no porque hasta el momento no se hubieran concretado las propuestas oficiales a la realidad de cada centro, en realidad, de cada aula, sino porque esa concreción, a partir de estos momentos, deberá ser responsabilidad colectiva de un claustro, y habrá de ser coordinada, sistematizada y justificada"*<sup>25</sup>.


Azken batean, ikasketxearen currículum-proiektua, izan ere, ikasketxearen kultur proiektua da. Eta kultur proiektu hori finkatzea eta sakontzea, hain zuzen, ikasketxearen aritzen diren guztion lana bezala ulertzen da erreforman.

Aukera historiko baten aurrean gaudela esan dut, horrela iruditzen zait eta. Uste dut irakasle zaretanak bat etorriko zarete-lan nirekin honako honetaz: askotan, gure aldameneko irakasleak ere, gure ondoan egunero aritzen denak, zer erakusten duen, zer ikuspegi ematen duen, zer lortu nahi duen... ez dakigu.


Orain 100 urte, nire herrian, bi eskola zeuden. Eta eskola bakoitzean maisu eta maistra bana, bakoitzak bere proiektua —bere praktika— ahal zuen moduan aurrera ateratzen.

25. SALINAS, Dino: op. cit., 70. or.

Ik. Curriculum Pr.



Ik. Kultur Pr.



Orain 20 urte ere, ni maisu bezala heldu nintzenez herri-  
ra, bi eskola zeuden, baina bakoitzean hamar bat irakasle ari-  
zen ginen, gutako bakoitzak gure proiektua ahal genuen  
moduan aurrera ateratzen.

Gaur egun ere bi eskolak jarraitzen dute herrian, eta  
bakoitzean dozena pare bat irakasle. Zenbat proiektu?, zen-  
bat ikuspegi?, zenbat kultura? Bat?, bi?, hamar?, dozena  
pare bat?

Erronka gain-gainean dugu, eta ez zaigu aukera hau  
galtzea komeni. Gutxienezko adostasunetara heltzen ez  
bagara, jai dugu. Bakoitzak bere bideari eutsiko dio... bere  
gelan.




— Lehenengoa, **eskola eta ikerketa-munduen artean dibortzio** luzea eman dela. Ikaragarriko distantzia dagoela. Inkomunikazioa dela nagusi. Eta eskolari, dituen baliabideekin, ezin zaiola ez dauden materialak sortzea eskatu. Eusko ikaskuntzen inguruko ikerketak beste nonbait egin beharko dira —ziur aski unibertsitatean— eta ikerketa horien emaitzak eskolen eskura jarri. Egokitzapen-lana, bai, eska dezaiekegu eskolari, irakasleei...; baina datuak, edo testuak, edo dena delakoak egokitzeko, lehenengo eta behin datuak edo testuak eduki behar dira.

— Bigarrena, curriculum-materiaien arloan azken hamabost urte hauetan **politika ezberdinak** eman direla, eta politika horien fruituak aztertu beharko lirakeela. Politika hitzarekin zera esan nahi dut: administrazioak jokatu duen papera, subentzioen politika, bertako eta kanpoko argitaletxeek bete dituzten zuloak eta daramatzaten bideak, irakasle-taldearen zeregina... Nafarroako edo Euskal Elkarterko administrazioek jokatu duten papera, esaterako, nahikoa ezberdina izan da arlo honetan, politika bakoitzak ondorio ezberdinak izan dituelarik<sup>26</sup>.

— Eta hirugarrena, Euskal Herrian irakasteko dagoen materialei buruz **ikuspegi erabat ezberdinak** daudela, iritzirik kontrajarriak ez badira. Normalean, euskaraz dagoen materialean oinarritzen gara iritzirik emateko. Euskaraz eta kantitatetaz. Ez dakit zein urtetan hainbat testuliburu argitaratu zirela euskaraz; gaur, ordea, hainbat gehiago. EIMaren datuak, edo Juan Mari Torrealdaiak urtero eman dizkigunak, edo Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak noiz-behinka ematen dituenak ikusi besterik ez dago, denbora gutxian izugarrizko gorakada eman dela konturatzeko<sup>27</sup>. Badirudi material ugaria dugula.

Hala ere, irakasle askok ez dute horrela pentsatzen, Hona hemen *“Euskarazko baliabideen eskasia aitzaki bat besterik ez da”* esateraren aurrean beraien iritzia<sup>28</sup>.

Ereduka: erdiak baino gehiago ez daude horrekin ados. Ezadostasuna handiagoa da B ereduko irakasleen artean (% 59).



26. Ikus, esaterako, "Irakaskuntzaren erreforma eta ikasmaterialgintza" izenburuz eta 1992ko maiatzean 8ko datuz, Euskararen Aholku Batzordeak prestatutako txostena.

27. Ikus, esaterako, HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (1993): "(Inoiz baino euskal liburu gehiago argitaratu zen 91n" in *Euskararen berripapera*, 10.

28. BARQUIN, Javier, BARCELO, Fermin: "El profesorado de Euskadi, Estudio de sus planteamientos didácticos" 72. eta 81. orr. bereziki datu zehatzagoak ikusteko.

\* Curriculum-materialak

Azpimarratu nahi nuen bigarren gaia curriculum-materia-  
lena zen. Eta gai honen inguruan hiru gauza besterik ez dut  
aipatuko.

Eskola publikoen eta ikastolen irakasleen iritziak bereiz-tuz: hemen ere, kasu bietan, erdiak baino gehiago ez daude ados.

Errealitate ezberdinen, edo ikuspegi kontrajarrien aurrean gaudela dirudi.

Gauza bat da, dena dela, argia ikusten duten materialen kopurua, eta bestea horietatik zeintzuk erabiltzen diren eta zer-nolakoak diren. Eusko ikaskuntzak nola dauden, edo ez dau-den, islatuak ikusteko materialen irudiak, estereotipoak, edukien pisu erlatiboa eta abaraztertu beharko lirarteke. Emakumeen trataera aztertzeko, esaterako, egiten hasi diren bezalakoak.

Eta baten batek uste badu garrantzi gutxiko puntu baten aurrean gaudela, hona hemen, erantzun moduan eta puntu honi amaiera emateko aipu hau:

*“Todos los materiales pedagógicos que utilizan profesores y alumnos son mediadores muy decisivos de la cultura en las escuelas, porque son los artifices del qué y del cómo se presenta esa cultura a profesores y alumnos. Allí se refleja de forma bastante elaborada la cultura real que se aprende. Es la razón por la que los materiales son elementos estratégicos para introducir cualquier visión alternativa de la cultura”<sup>29</sup>.*

## 5. ETORKIZUNARI BEGIRA

Epe laburrean behintzat, eta beharbada epe ertainean ere bai, ez dirudi curriculum-proposamen ofizialetan aldaketa handirik izango dugunik. Erreformak finkatu edo finkatzen ari diren curricula urte batzuetarako baliogarriak izatea espero daiteke. Beharbada, Europan sortu beharko den marko juridiko berritik etor daiteke zerbait: etortzekotan, gure programatan Europarekiko edukiak nabarmenago azaltzeko eskakizuna. Baina, funtsean, oraingo curriculum-disenuaeren harian mugituko gara hurrengo urte hauetan.

Askoren ustez, **hezkuntza benetako aldaketak lortzeko, hiru mailatan eman behar dira aldaketak**, eta hiruretan aldi berean:

- . hezkuntzari buruz egiten ditugun **diskurtsoetan**;
- . eguneroko **praktikan**;
- . **jarretan**.

Beraz, hiru plano, eta hirurak lotu beharrekoak

Ponentzia honetan zehar azpimarratu nahi izan ditudan arloen ildotik jarraituz, aurrera begira eta eusko ikaskuntzak curriculumean era zabal batean txertatzea nahi badugu, **honako hiru ardatz nagusi hauetan eman beharko lirarteke pau-suak**, nire ustez:

- **irakaslegoaren trebakuntza**;
- **curriculum-baliabidetan**;
- **giza agenteen arteko lotura eta lan-banaketa**

Eta kasu honetan ere, hiru ardatz horietan eman beharreko pausuak lotuta daude, edo lotuta egon beharko lukete, baldin eta emaitz onak lortu eta gure helburuak bete nahi baditugu.

Kongresu honen antolatzaileek aurrean jarri nahi diguten galdera, nolabait, honako hau da: **gure gaurko hezkuntz siste-man, nola instituzionalizatu eusko ikaskuntzak?** Kongresoan zehar, ziur nago, makina bat proposamen plazaratuko dira. Hasiara honetan, pista batzuk, edo jorratu beharreko bide batzuk, aipatzen ausartu naiz ni.

Eusko ikaskuntzak hezkuntz curriculumean txertatu nahi badira, hainbat maila eta arlo ezberdinetan hartu beharko lirateke **neurriak**:

- Administrazio, unibertsitate, erakunde eta irakasleen arteko arduren banaketan.
- Giza mailan ditugun baliabideen zabalkunde eta apro-betxamenduan.
- Ikerketa eta irakaskuntza munduen arteko harremanetan.
- Irakaslegoaren prestakuntza...

Plano guzti horiek lotuta daude: ikerketak, prestakuntzak, berrikuntzak eta antolakuntzak erabat lotuta egon behar dute benetazko aldaketak lortzeko. Eta ezin dugu ahaztu, jakina, **ikastetxea** dela gaur egun denok aldarrikatzen dugun **aldaguna**, *“la escuela como unidad de cambio”*, irakurtzen dugu behin ta berriro erdaraz.

Beraz, ikastetxe mailan ere —eta hemengo asko maila horretan aritzen zarete— benetako aldaketa emateko hiru gu-txieneko baldintza bete beharko lirarteke:

Gure eguneroko irakaskuntza praktiken inguruan haus-narketa sortzea, elkar arteko hausnarketa.

Ikastetxe eta irakasleen autonomi esparruak indartzea eta erabiltzea.

Eta ikastetxearen antolakuntzaren baitan beharrezko baldintzak jarri eta beharrezko neurriak hartu.

Agian, azkenengo lerroen azpian gure historian hainbat eta hainbat fruitu eman duen erakunde baten aldarrikapena dago: auzo- lanarena, alegia. Zoritxarrez, **auzo-lana** behar fisikoetarako erabili izan dugu historian zehar; ez, ordea, lan intelektualetarako. Ba, garaia da!

Eta ez pentsatu hau aspaldiko kontua denik, mende aurreko ipuina edo. Zer dira, ba, Kemmis jaunak —Pedagogia kritikoaren aitaponte ezagun eta famatuenetarikoa batek— aipatutako *“comunidades autorreflexivas”* delako horiek? Praktikan buruzko hausnarketa egiteko elkarguneak, teoria eta praktika uztartzeko elkarren arteko topaguneak.

Gregorio Monrealek ere, Eusko Ikaskuntzaren lehendakari bezala, izpiritu berbera eskatzen zuen erakunde honetarako.

*“Euskal Herriaren arazoan gainean denon hausnarketarako balioko duen plataforma baten beharra, herri hau nolabait maite duenarentzako instantzia irekia”, aldarrikatzen zuen berak<sup>30</sup>.*

Orain pare bat hilabete, John Elliott entzuteko parada izan genuen batzuek. Elliott jaunak, hain zuzen, orain arteko curriculumen aldaketa-ahaleginetan bi eredu bereizten zituen Ingalatarrako kasuan, eta biak porrota egin dutela esan. Lehenengo ereduaren arabera irakasleek izan behar zuten aldaketaren eragile; bigarrenean, ordea, estatua edo adminis-trazioa. Hirugarren bide bat proposatzen zuen berak: *“curricu-lum-aldaketa giza esperientzia bezala”*. Eredu honen arabera, aldaketaren eragileak giza sektore ezberdinen elkarren arteko hausnarketa, elkarriketa, elkartrukaketa eta esperientziazioa izango lirarteke. Horrela, curriculum-aldaketaren estrategia tal-deen arteko elkarriketatik sortuko lirarteke, talde bakoitzak gizartean dauden interes ezberdinen ordezkoak izaki<sup>31</sup>.

Joan den udan, Stephen Kemmis irakasleari egindako elkarriketa batean honako galdera hau egin zioten: *“¿Cómo podemos empezar a hacerlo?”* Askotan geure buruari egiten diogun galdera.

30. Monreal, Gregorio: “Beste pauso bat”, 4. or.

31. John Elliot, “El rol del profesorado en el desarrollo del curriculum una cuestión no resuelta en las tentativas inglesas de reforma curricular” izen-buruean emandako hitzaldian. A Coruña, 1993.eko irailaren 28an, Congreso Internacional de Didáctica.

29. GIMENO, J.: op. cit., 52. or.

Eta honela erantzun zuen berak:

"¿Cómo empezar a hacer pedagogía crítica en la escuela? (...) Mi opinión es que vale la pena invitar a los profesores a que participen en los proyectos que les permiten ver que ellos perjudican a estas cuatro cosas (...): cómo su trabajo cotidiano impide que los estudiantes analicen su propio modo de pensar, cómo les impide un análisis de su situación social, cómo les impide analizar su propio proceso de educación, cómo les impide participar en la transformación"<sup>32</sup>

Beraz, badugu nondik hasi... eta nondik jarraitu. Bide hori luzea baita. Erabat apropos jarri dut pedagogia kritikoaren aipu hori, zeren gure gaurko gai honetan ikuspegi kritikoa izatea guztiz garrantzitsua iruditzen baitzait, bide estuegi eta labainkorretatik at ibili nahi badugu behintzat.

Aurrera begira gabiltza azkenengo atal honetan, aurrera begiratzea baitugu bide bakarra egoera hobetzeko. Hala ere, noiz-behinka, atzera begiratzea ere komeni izaten da. Eta nire azalpen hau amaitzeko atzera begiratu nahi dut une batean.

Orain 60 urte, Aniceto de Olano euskaltzailak euskal pedagogiari buruzko artikulu batzuk idatzi zituen Yakintza aldizkarian. Artikulu haien azpiztituluak grazia egin dit beti; silogismo osoa baita: "Existe el problema. Interesa el problema, Hay que solucionarlo"<sup>33</sup>.

Hirurogei urte luze pasa arren, hemen gauden asko, agian, ados egongo ginatke Olanoren silogismoarekin.

Baina adostasun horrekin ez dugu aurrerapausu handirik emango. Diagnosisa ez baita nahikoa. Caro Barojak bildutako esaera zahar batek esaten duenarekin amaitu nahiko nuke:

"Mediano, pequeño y pobre  
todos seamos una masa  
y si no de lo contrario  
nunca habrá pan en tu mesa".

Ea, ba, kongreso honetan ogia labetik erre baino lehen ateratzeko gai garen!

Amen,... eta eskerrik asko.

## AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- ARETA, L.M. BENITO, J. (1990): *Las ideas pedagógicas de los ilustrados vascos*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlearitzaren Argitalpen Zerbitzua.
- ARRIEN, G. (1987): *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia. (Escuela y autonomía. 1898-1936)*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.
- BAROJA, P. (1941): *La leyenda de Jaun de Alzate*. Madrid, Espasa-Calpe.
- BARQUIN, J.; BARCELO, F. (1993): *El profesorado de Euskadi. Estudio de sus planteamientos didácticos*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlearitzaren Argitalpen Zerbitzua.
- DOLARA, M.T. (1986): *Historia de la educación en el País Vasco*. Argitaratu gabeko tesina. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- DONOSTIA, P. (1933): "La Música en las Escuelas Vascas" in *Yakintza, I tomoa*. Donostia, Sociedad de Estudios Vascos.
- ECHEGARAY, B de (1934): "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el país Vasco" in *Yakintza, II tomoa*, Donostia, Sociedad de Estudios Vascos.
- ESTORNES LASA, B. (1933): "La historia vasca en la escuela primaria" in *Yakintza, I tomoa*. Donostia, Sociedad de Estudios Vascos.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, I. (1984): *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko-lkaskuntza a la cultura vasca (1918- 1936)*. Donostia, Eusko lkaskuntza.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (1992): *Irakaskuntzaren erreforma eta lkasmaterialgintza*. Argitaratu gabeko txostena.
- GIMENO, J. (1991): "Curriculum y diversidad cultural" in *Boletín de la Asociación de Enseñantes con Gitanos, 4*. Eranskina.
- HEZKUNTZA SAILA (1992): *Haur hezkuntza/ Lehen hezkuntza/ eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzarako/ Oinarriko Curriculum Diseinuak*. Gasteiz, Eusko Jaurlearitza. (18 liburu guztira).
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (1993): "Inoiz baino euskal liburu gehiago argitaratu zen 91n" in *Euskararen berripapera, 10*. Gasteiz, Eusko Jaurlearitza.
- KEMMIS, S. (1993): "Entrevista con Stephen Kemmis" in *Aula de innovación, 15* Barcelona, Graó.
- KNORR, E. (1993): "Europako kultura Maastricht eta gero" in *Asmoz ta jakitez, 18*. Eusko lkaskuntza.
- LASA, J.I. (1968): *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*. Donostia, Aurlamendi.
- MONREAL, G. (1992): "Beste pauso bat" in *Asmoz ta jakitez, 0*. Eusko lkaskuntza.
- OLANO, A. de (1933): "Pedagogía vasca. Existe el problema. Interesa el problema. Hay que solucionarlo" in *Yakintza, I tomoa*. Donostia, Sociedad de Estudios Vascos.
- PUELLES, M. (1991): *Los valores en las grandes leyes de educación. Educación y valores en España*. Madrid, CIDE.
- SALINAS, D. (1992): "¿Cómo pensamos un curriculum para el curso que viene?" in *Cuadernos de Pedagogía, 208*. Barcelona, Fontalba.
- STENHOUSE, L. (1984): *Investigación y desarrollo del curriculum*. Madrid, Morata.
- STENHOUSE, L. (1987) *La investigación como base de la enseñanza*. Madrid, Morata.
- TOLEDO, A.M. (1989): *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.
- URZAINQUI, T. (1993): "1918-1993: Eusko lkaskuntzaren betekizun europar berrizua" in *Asmoz ta jakitez, 12*. Eusko lkaskuntza.

32. Kemmis irakaslearen erantzuna, in "Entrevista con Stephen Kemmis", 83.or.

33. Olano, Aniceto de: op. cit., 38 or.